

UR URREAK
AGUAS TURBULENTAS
EAUX AGITÉES
TURBULENT WATERS

interdisciplinar Lab

IÑAKI ARRIETA URTIZBEREA

UR URREAK: MUSEOGRAFIA ESPERIMENTALETARAKO ETA ESPLORAZIO-LABORATEGIETARAKO GAKOAK

Museoetan ematen ari den berrikuntza edo berrasmakuntza nagusietako bat erakusketek azpiegitura kultural horietan hartu duten garrantziarekin lotuta dago. XX. mendearen erdialdera arte, museoaren garrantzi politiko, sozial eta zientifikoa bertan zeuden bildumetan oinarritzen zen batez ere. Hala ere, azken hamarkadetan, museoen hedapen- eta erakusketa-funtzioek garrantzia handiagoa hartu dute kontserbazio-funtzioaren aldean. Hori gertatu da, besteak beste, “demokrazia kulturalaren” eta “kulturaren demokratizazioaren” printzipioak pixkanaka orokortu direlako. Printzipio horien arabera, gizartera zabaldu behar da museoa, eta hori lortzeko moduetako bat erakusketaren bidez da.

*Dictionnaire encyclopédique de muséologie*¹ren arabera, “erakusketa” terminoak, erakusteko ekintza, erakusten dena, baita erakusteko erabiltzen den espazioa ere esan nahi du. Sententzia labur eta simple horrek oso prozesu konplexua ezkututzen du, zeren eta erakusketa, edo erakusteko ekintza edo prozesua, ez delako *soilik* objektu batzuk aurkeztea. Komunikazio-prozesu bat da, ideiak, kontzeptuak, fenomenoak, ekintzak, gertaerak, balioak edo emozioak diskurtso baten bidez transmititzea helburu duena, espazio batean banatu eta, berez, gutxi gorabehera absente dagoen zerbaiten —hau da, gertakari, ideia, kontzeptu, emozio horiek...— zeinu gisa erabiltzen diren objektu batzuetan oinarrituta. Hortaz, transmititu nahi denaren konplexutasun-maila aldatu egiten bada ere, erakusketaren asmoa hauxe da, transmititu nahi den hori *berpiztea*, elementu jakin batzuetatik abiatuta, zeinak, berez, konplexutasun horren parte baitiren edo berarekin lotuta baitauden. Zentzu horretan, erakustearen prozesua sormen-ekintza bat da, *absente* dagoena transmititu nahi den neurrian, konplexutasun horren elementu, partzial, jakin batzuetatik abiatuta. Prozesu hori bera ere dago, edo egon daiteke, sormenari lotuta, ezagutza eta esperientzia berriak sorraraz ditzakeelako erakutsitako diskurtsoaren hartzaileengan: bisitariengan.

Diskurtso bati heltzeko premiak, konplexutasun horren berri emateko, argi eta garbi jartzen du mahai gainean bere izaera *eraikia* edozein motako erakusketan. Hala, erakusketaren egileen, diseinatzaileen, komisarioen eta abarren interpretazio-estrategiaren arabera egiten da eraikuntza hori, eta, beraz, haien subjektibotasunak baldintzatzen duen estrategia bat da.

Hala, erakusteko ekintzaren izaera eraikiak eta subjektiboak komunikazio-prozesu horretan zeintzuek parte hartzen duten galdetzera eramaten gaitu. Eta lehen hurbilketa batek agerian uzten digu askotarikoa eta anitza dela prozesu horretan parte hartzen duten agenteen edo eragileen amalgama. Komunikazioa igortzeari dagokionez, politikariak, babesleak, kontserbatzaileak, zientzialariak, espezialistak, komisarioak, proiektuez arduratzen direnak, diseinatzaileak eta teknikariak ditugu, bakoitza bere interpretazio-errepertorioekin, ezagutzekin, trebetasunekin, balioekin eta interesekin. Hortaz, eragile horien guztien arteko negoziazio-joko korapilatsua ezkututzen du objektuak erakusteko ekintzak. Erakusteko prozesua, beraz, indar-eremu bat da komunikazioaren xedeari lotutako alderdi hauei buruz: nor, zer, nola, non, noiz eta

zergatik. Jakina, joko hau ez da berdinen artean gertatzen. Erakusteko ekintzan eraten den indar-eremuaren barruan, boterea ez da berdin banatzen diskurtsoaren eta narratiba-motaren edukiak iradokitzeke edo inposatzeko garaian. *Konfrontazio* horrek diskurtsoaren alderdi orokorrei eragiten die, transmititu beharreko mezua alderdi ideologikoekin edo zientifikoekin zerikusia dutenei, baina baita gai zehatzagoekin zerikusia dutenei ere, ibilbidea ezartzearekin edo instalatu beharreko azalpenezko panel-motarekin lotutakoei, adibidez. Bigarren gai horiek, zenbaitentzat txikiak edo garrantzi gutxiago dutenak lehenengoan aldean, baldintzatu egiten dute, asko gainera, transmititu nahi den diskurtsoa.

Hala ere, edozein direla ere erakusketaren komunikazio-prozesuaren igorleen helburuak eta helarazi nahi den diskurtsoaren sendotasuna, kontuan hartu behar da hartzailleek interpretatzen dutela diskurtso hori, hau da, bisitariak. Freeman Tildenek dioen bezala, bisitariak bere begien bidez hautematen du mezua eta bere ezagutzaren eta esperientziaren arabera interpretatzen du. Arrazoi horregatik, hain zuzen, azken hamarkada hauetan erakusketa-planteamendu interaktiboagoak eta dinamikoagoak lantzeari ekin zaio, eta are konplexuago bihurtu du horrek erakusteko ekintza.

Interakzio hori, bisitariarekiko, bi mailatan planteatu daiteke. Lehenengoan, diseinatzaileak edo komisarioak uko egiten dio gai bat modu erantzunezin batean ezartzeari erakusketan. Helburua hau da, bisitariak berak eraikitzea edo garatzea bere ikuspuntua, besteak beste, *muséologie de la rupture* metodologiari jarraituta. Bigarren mailak bisitariaren parte-hartzea handitzea dakar. Hala, bisitariak erakusteko ekintzan bete-betean parte hartzea dakar, eta diskurtsoaren lanketan eta aurkezpenean inplikatzeko. Bisitariak erakusketaren indar-eremuan esku hartzea da asmoa, erabakiak hartzen parte hartuz. Hala ere, argi dago parte-hartze maila oso zabala izan daitekeela, kontsultatik hasita —behin diskurtsoa landuta dagoenean— bere erabateko inplikazioraino —erakusketa-proiektuaren sorburutik hasita—.

Dena den, publikoak bigarren maila horretan parte hartzeak erronka garrantzitsuak planteatzen ditu, eta erronka horiek ez dira ebatzen errazak. Orain arte bisitariak hitz egin dugu, baina argi dago ez dagoela *bisitari bat*, bisitariak baizik. Orduan, jarraian, galdetu beharra dago erakusketa batean zeintzuk diren bisitariak edo zeintzuek osatzen duten bertaritzen den publikoa. Eta erantzuna ez da ez, erraza, orokorrean ezer gutxi baitakigu museoak edo erakusketak bisitatzen dituen publikoaren osaeraz. Ezjakintasun hori areagotu egiten da bisitarien ezaugarri demografiko edo sozioekonomikoetatik haien ezaugarri kulturaletara igarotzen garenean, kontuan hartuta ezaugarri kulturaletan oinarrituta interpretatzen dutela erakusketaren proposamena. Hala ere, formula berriak lantzen ari dira parte-hartzearen erronka gainditzeko asmoz, besteren artean, “ahots edo kontakizun anitzak”, “ikuspegi anitzak” edo “kontaktu-guneak” izeneko planteamenduak.

Erakusteko ekintzari eragiten dioten aldagaiekin amaitzeko, eszenografiarekin zerikusia duen guztia nabarmendu beharko litzateke, hau da, diskurtsoa zehazten den erakusketaren alderdi formal eta materialekin zerikusia duena, *Ur urreak* proiektuan bezala, non arte garaikideak eta ikerketa zientifikoak bat egiten duten Donostiako Aquariumeko ibilbide normalizatu/ezarriarekin, modu esperimental batean eta ariketa berriei heltzeko saialdi batean. Izan ere, erakusketaren eszenarioa, bere objektu eta instalazio guztiekin, ez da espazio fisiko soil bat, non hedatu eta erakutsi egingo den diskurtsoa paperean landu den bezalaxe diseinatzaileen edo komisarioen bulegoetan. Eszenarioak, bere antolamenduak, mezua jasotzen den modua ere baldintzatzen du. Zehatzak izateko asmorik gabe, elementu hauek baldintzatzen dute erakusteko ekintza: argiztapena, euskarriak, bitrinak, atrilak, panelak eta beste euskarri batzuk, ikus-entzunezko baliabideak eta interaktiboak, hormen kolorea, aretoen neurriak eta dekoratua, ibilbideak, informazio-testuak eta, nola ez, eraikina bera.

¹André Desvallés eta François Mairesse. Dictionnaire encyclopédique de muséologie (2011) Paris: ArmandColin, 133. or.

Iñaki Arrieta Urtizberea irakaslea da Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean. Museologiaren eta kultura-ondarearen arloetan oinarritzen da bere ikerketa-lana.